

Kohesio-indarrak




Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.


1. Ondoko sustantziak dauzkagu: sufrea, diamantea, ura, potasio kloruroa, sodioa eta metanoa. Jarri sustantzia bakoitza bere lekuan ondorengo taulan, hantxe agertzen diren ezaugarriak kontuan hartuz.

Giro tenperaturan gas egoeran dago. Giro tenperaturan baino tenperatura askoz baxuagoan solido molekularra da.	
Eroale elektriko ona da. Fusio-puntua 200°C-koa dauka (gutxi gora behera)	
Solido kobalentea da. Fusio-puntu altua dauka.	
Solido egoeran isolatzaile elektrikoa da. Disolbatuta eta fundituta dagoenean, berriz, eroalea da.	
Giro tenperaturan likido egoeran dago, eta hidrogeno lotura sendoak daude.	
Solido molekularra da giro tenperaturan. Molekulak 8 erpineko eraztunak dira.	

2. Metanolaren irakite-puntua metanotiolarena baino altuagoa al da?
 3. Karbono monoxidoaren fusio-puntua dinitrogenoarena baino altuagoa al da?
 4. Hidroxibenzaldehidoaren *orto* isomeroaren fusio-puntua *meta* zein *para* isomeroena baino baxuagoa al da?



5. Hidroxilanilinaren orto isomeroaren fusio-puntua meta eta para isomeroena baino baxuagoa al da



6. Ondorengo taulan zenbait hidruoen FP fusio-puntu (K) eta IK irakite-puntu (K) parametroen balioak daude bilduta. Azaldu joerak.

	NH ₃	PH ₃	H ₂ O	H ₂ S	HF	HCl
FP	195.5	139	273	187.5	190	159
IP	240	185	373	212.9	293.1	188

7. Ondorengo taulan zenbait hidruoen IK irakite-puntu (K) eta ζ biskositatea (mpoiss) parametroen balioak daude bilduta. Azaldu joerak

	H₂O	CH₃OH	(CH₃)₂O
IP	373	336	268
ζ	10.05	5.97	2.33